

ESKOLA KIROLEKO PROIEKTUA



OROKIETA HERRI ESKOLA

Zarautz, 2008ko maiatza

A.- SARRERA ETA HELBURUAK

I.- Proiektuaren nondik norakoak.

II.- Oinarri pedagogikoak.

III.- Helburuak.

B.- BALIABIDEAK

I. Sarrera.

II. Gaur egungo egoeraren azterketa.

1.- Erakunde arloko baliabideak:

a.- Hezkuntza Saila

b.- IGEa

c.- Orokieta Herri Eskola

d.- Klubak eta federazioak

e.- Beste erakunde batzuk

2.- Baliabide materialak:

a.- Ekonomikoak

b.- Instalazioak

c.- Bestelako materialak

3.- Giza baliabideak:

a.- Ikasleak

b.- Entrenatzaileak

c.- Koordinatzailea

d.- Irakasleak

III. Eskola Kiroleko egitura, aurrera begira.

1.- Erakunde arloko baliabideak:

a.- Hezkuntza Saila

b.- Orokieta; Eskola Kontseilua

c.- Balurdin IGEa

d.- Klubak eta federazioak

e.- Beste erakunde batzuk

2.- Baliabide materialak:

a.- Ekonomikoak

b.- Instalazioak

3.- Giza baliabideak:

a.- Ikasleak.

b.- Entrenatzaileak

c.- Diziplinetako koordinatzaileak

d.- Eskola Kiroleko koordinatzailea

e.- Irakasleak

IV. Eranskinak.

C.- BEREHALA GAUZATU BEHARREKO JARDUERAK

1. Administrazioaren eta antolaketaren arloan.

2. Baliabide materialen arloan.

3. Giza baliabideen arloan.

a.- Koordinatzailea

b.- Entrenatzaileak

c.- Irakasleak

4. Hezkuntza arloan.

a) Entrenatzaileak

b) Gurasoak

c) Kolektibo guztien jarduera bateratuak

ESKOLA KIROLA, OROKIETA HERRI ESKOLAN:

A.- SARRERA ETA HELBURUAK

I.- Proiektuaren nondik norakoak

Eskola Kiroleko jardueren programa Gipuzkoako Foru Aldundiak jarri zuen abian, eta honako helburu nagusi hauek ditu: Gipuzkoako ikasle guztiak kirola egiten hastea, kirol prestakuntza epe luzeko prozesu gisa landuta. Kirol lehiari zeregin garrantzitsua aitortzen zaio prestakuntza horren baitan, eta, gainera, ikasle guztiei kirol anitz probatzeko aukera eskaintzen zaie”.

Programaren bidez, hala ere, eta batez ere, “**kirolaren bidez heztea**” lortu nahi da. Hori dela-eta, honako alderdi hauek aintzat hartuko dituen eskola kiroleko eredu bat proposatzen du:

-“balioak transmititzea (talde jolasa, adiskidetasuna, joko garbia, arerioarekiko errespetua,...)”;

-“ikaslearen indibidualtasunaren errespetua, lehiaren bidez presiorik egin gabe, haurrei beren espezializazioa askatasunez aukera dezaten utziz, kirol aukera zabala ezagutu ondoren”;

-“kirolaren bidez adingabeen garapena bideratzeko eta beren gaitasunak agerian uzteko aukera ematea”.

OROKIETA HERRI ESKOLA bat dator eredu horrekin, hein handi batean, eta apustu garbia egin du eskola kirolak gure seme-alabentzat duen izaera hezitzailea sustatzeko. Hala ere, programa horren aplikazio batzuk direla-eta, azkenaldian aplikazio horiek hartzen ari diren indarra ikusita, ezinbestekoa jotzen dugu eskola kirolerako gure hezkuntza proiektu propioa lantzea; hau da, gure ikastetxearen hezkuntza proiektuan bildutako balioekin eta helburuekin bat etorriko den proiektu bat lantzea.

Hala, OROKIETA HERRI ESKOLAK, proiektu propio horren bidez, urrundu egin nahi du eskola kirolean lehiaketari gero eta estuago lotzen ari zaizkion beste joera edo ikuspegi batzuetatik; errendimenduari lehentasuna ematen dioten joera eta ikuspegietatik; dohainik onenak dituzten kirolariak aukeratu, gainerakoak baztertu, eta hautatuekin teknifikazioa lantzea xede duten joera edo ikuspegietatik. Izan ere, ikuspegi horiek aurrez aurre topo egiten dute gure ikastetxearen hezkuntza proiektu orokorraren xede nagusietako batekin, **AUKERA BERDINTASUNAREKIN**, eta ondorio kaltegarriak dituzte ikastetxe gisa dugun hezkuntza eginkizunari begira.

Joera horien ordeztu, eskola kirol **hezitzaile, unibertsal eta integratzailea** eta haurrek adin horretan bilatzen duten izaera ludikoari eutsiko diona proposatzen dugu.

II.- Oinarri pedagogikoak

Eskola kirolerako gure proiektuak pertsonaren kontzeptu integratzailea du abiapuntu. Izan ere, mugikortasuna, inteligentzia arrazionala eta inteligentzia emozionala uztartuta daude; hain estu uztartuta, non, gure lehen haurtzaroan, ezinezkoa baitzaigu horiek bereiztea. Pertsona bere ingurune naturalarekiko nahiz harreman ingurunearekiko hartu-emanaren bidez hazten da; pixkanaka bizipen askotariko horien izaera identifikatzen du (fisikoa, emozionala eta intelektuala) eta horietatik abiatuta eraikitzen du norberaren irudia.

Ikuspegi horren arabera, eskola kirolaren esparrua esparru bikaina da hezkuntzarako. Eskola Kirola programa lantzen hasteko adinean, haurrek dagoeneko badute beren bizipenen izaera bereizteko gaitasuna, eta dagoeneko ohartzen dira badirela beste izaki batzuk beraiek bezala askotariko esperientzia horiek bizi dituztenak; baina, ekintzak erakarpen handia du, oraindik, beraientzat.

Taldeko kirolaren izaera ludikoa, horrek dakarren mugikortasuna eta harremanak egiteko premia direla-eta, ezin uka daiteke oso esparru erakargarria dela adin horretako haurrentzat; izan ere, dibertsioa bilatzen dute, senez, joera nabariagoa dute ekintzarako, pentsamendurako baino, eta pertsonen arteko harremanetara erabat irekita daude, dagoeneko.

Berezko erakarpen horrek erraztu egiten digu gure hezkuntza jarduera. Programan eskaintzen diren kirolek, kirol horiek ikasteko prozesuaren bidez (joko arauak, dinamikak, ezagutza teknikoak, jarrerak eta balio eraikitzaileak, ongizatearen kudeaketa eta gatazkak konpontzea, etab), haurren garapen integrala sustatzen eta pertsonaren maila orotako ikaskuntza ahalbidetzen dute; horrekin batera, harremanetarako gaitasuna lantzeko aukera ere ematen dute.

III.- Helburuak

Aurreko guztia kontuan harturik, honako helburu hauek finkatu ditugu eskola kirolerako:

- Gure seme-alabei **harremanak egiteko** erraztasunak ematea eta **guztien** partaidetza sustatzea. Eskola kirolak eskaintzen dituen eta lehen azaldu ditugun hezkuntza eta prestakuntza aukera guztiak ikusita, ezinbestekoa iruditzen zaigu eskola kirolaren izaera unibertsala aldarrikatzea. Hala, gure helburuetako bat gure ikastetxean dugun partaidetza ehuneko altuari eustea izango da, eta, horrekin batera, adin horretan inork gaitasunik ezaren sentipenik izan dezan saihestea.
- Ikasleei **aisiarako eta olgetarako** jarduerak eskaintzea, kirola **hezkuntzarako tresna** ere badela kontuan hartuta, aldi berean; ildo horretatik, **jolasean ikas dezaten** da gure xedea.

- **Ikastetxearen irudi ludiko, hurbileko eta etxekoagoa** sustatzea, hezkuntza eragile guztien –gurasoen, irakasleen, teknikarien...– inplikazioaren bidez.
- **Bizi ohitura osasungarriak** sustatzea, etorkizunean bizi estilo aktiboak eta aisiarako ohitura positiboak har ditzaten. Ahalik eta kirol sortarik zabalena lantzeko aukera ematea.
- **Aniztasuna** (guztiok gara garrantzikoak, guztiok egin dezakegu geure ekarpena) eta **talde lana (lankidetzak eta osagarritasuna)**, betiere indibidualtasuna errespetatuta; desberdintasunak batzen gaitu eta lorpen handiagoetara iristeko aukera ematen digu).
- **Taldearen arteko kohesioa** sendotzea, taldeko kide sentiarazten laguntzea, funtsezko sentimendua baita taldearekiko **konpromisoa eta erantzukizuna** hartzeko.
- **Norberaren gaitasun bereziak** sustatzea. **Norberari buruzko iritzia** osatzen laguntzea, nor bere buruari buruz irudi positiboa izatea eta bakoitzak bere gaitasunetatik abiatuta taldean bere tokia aurki dezan laguntzea.
- **Mugimenduen eta trebetasunen koordinazioa** hobetzea.
- **Euskararen erabilera** normalizatzea, baita esparru honetan ere, erabilera akademiko hutsetik harago.
- **Kirol espezialitate bakoitzaren oinarriko arauak** erakustea. Guztiek **arauak onar ditzaten** lortzea, jolasaren garapena egokia izan dadin.
- **Hobetzeko gaitasuna** sustatzea, norberaren mugak kontuan hartuta eta jolasaren izaera ludikoa alde batera utzi gabe, betiere. Ibilbide bat zehaztea ikaskuntza gauzatzeko, ikasleen mailak, eta, une oro, norberaren erritmoa errespetatuz.
- Norberarekiko, taldearekiko, epailearekiko, arerioekiko, joko arauetako **errespetua** sustatzea.
- **Gatazkei aurre egiteko estrategia eraikitzaileak** erakustea eta **ondoeza kudeatzeko** bitartekoak eskaintzea (haserretzeko eskubidea; agresibitatea hipertentsioaren, erlaxazioaren, entzumenaren, ulermenaren, desdramatizazioaren... bidez behar bezala bidera edo ezaba daitekeen berezko sentimendu bat dela ohartzea).
- Norberaren gauzekiko eta taldearekiko **erantzukizuna** sustatzea.

ESKOLA KIROLA, OROKIETA HERRI ESKOLAN:

B.- BALIABIDEAK

I. Sarrera

Orokietako Herri Eskolarako Eskola Kirola proiektua eraikitzearen garaian, oso kontuan hartu behar ditugu eskuragarri ditugun baliabideak. Izan ere, baliabideak, giza baliabideak nahiz materialak, ezinbestekoak dira edozein proiektu aurrera ateratzeko, eta erabakigarriak izango dira, noski, gure ikastetxean gauzak egiteko moduan.

Era berean, aintzat hartu beharra dugu baliabideak mugatuak direla; “direnak direla”. Baina, eraikitzeaz ari bagara, etorkizunera begirako baliabide berriak ere eraiki daitezke.

Horregatik, testu honetan, azken urteetako baliabideen eta gaur egungo egoeraren azterketa egingo dugu, alde batetik, baina etorkizunera begira zer lortu nahi dugun ere zehazten saiatuko gara.

II. Gaur egungo egoeraren azterketa:

1.- Erakunde arloko baliabideak:

a.- Hezkuntza Saila.

Gauza jakina da eskola kirolari garrantzi handia ematen diotela, baina ez da horren islarik ikusten gure administrazioan; era berean, kontraesana iruditzen zaigu curriculum berrian soin hezkuntzako arloaren ordutegiaren murrizketa azaltzeko esatea eskola kirolak betetzen duela zeregin hori, eskola orduz kanpoko jardueren bidez. Irakasleen eta ikastetxearen beraren inplikazioa, jarduera honi dagokionez, irakasleen borondate hutsaren arabera izaten da, nahiz eta egia den gaur egun klustroan sentsibilizazio handia dagoela Eskola Kirolak ikasleei nahiz ikastetxeari begira duen garrantziari eta balio pedagogikoari dagokionez.

Hezkuntza administrazioak Eskola Kirolean duen zuzeneko inplikazioari dagokionez, hauxe da bere proposamena: ikastetxeko irakasle titular bat astean ordu kopuru txiki batez liberatzea, Eskola Kirola programa bideratzeko. Liberazio hori, ordea, eta dagokion irakasleak jarrera bikaina duen arren, ez da jarduera hau behar bezala kudeatzeko beharko litzatekeen gutxienekora iristen, ezta urrutitik ere.

Bestalde, zeharka bada ere, hezkuntza arloko administrazioari dagokio, nolabait, ikastetxeko zuzendaritzak kirol jarduera hau kudeatzen duen Eskola Kiroleko Batzordean ordezkariak eduki dezan sustatzea.

b.- IGEa

IGEaren gain gelditzen da, ikusten denez, erantzukizunaren karga handiena; izan ere, elkarte hori da Eskola Kirolaren antolaketaren alderdi asko eta asko kudeatzen dituen, zuzenean nahi zeharka.

c.- Orokieta Herri Eskola:

Irakasleen, ikastetxeko zuzendaritzaren eta IGEaren lankidetzari esker, Eskola Kiroleko Batzordea sortu zen. Gaur egun, honako kide hauek osatzen dute batzordea: ikastetxeko gurasoen ordezkariak (4), ikastetxeko zuzendariak (oro har, Eskola Kiroleko arduradun izendatutako irakaslearen gain uzten ditu bere egitekoak), Eskola Kiroleko irakasle arduradunak (astean hiru ordu ditu eginkizun horiek betetzeko; ordu kopuru barregarria, jarduera honek sortzen duen lan bolumena kontuan hartuta) eta Orokieta Eskola Kirola kudeatzeko batzorde horrek kontratatutako kirol teknikariak.

d.- Klubak eta federazioak

Ezinbestean aipatu beharrekoak dira; izan ere, ikastetxeko egituraren parte izan ez arren, haien esku dago lehiaketaren antolaketa, eta, gainera, funtsezkoak dira haien eta eskolen arteko lankidetzaren hitzarmenak sinatzeari begira. Atal honetan, bereziki nabarmentzekoa da klubek eta federazioek lehiaketetarako epaileak ezartzeko egiten duten ahalegin eskerra, lan nekeza baita, jarduera hori (epaileena) esker txarrekoa eta zaila izanik.

e.- Beste erakunde batzuk

Gaur egun, Gipuzkoako Foru Aldundia da Eskola Kirolaren gidaria. Hark finantzen ditu partaidetza arauak eta hark gauzatzen du Eskola Kirolaren administrazioa.

Kontuan hartu beharra dago, bestalde, Zarauzko Udalak koordinatzen duela udaleko kirol jarduera; udal teknikari baten laguntza (Eskola Kiroleko udal koordinatzailea) eta udaleko kirol instalazio batzuk eskaintzen dizkie ikastetxeei.

2.- Baliabide materialak:

a.- Ekonomikoak

Gaur egungo egituraren alderdi hau aldatu egin da berriki, bere garaian hartutako konpromisoak betetzea erabaki baita, behingoz. Orain dela urtebetera arte, gutxi gorabehera, eskola kirolerako diru sarrera bakarra E1 izenez ezaguna den programaren baitako diru laguntza zen, Foru Aldundiak eta Zarauzko Udalak banatua.

Eskola kiroleko programa hori, “E1” izenez ezaguna, honako erakunde hauek finantzatzen dute, zenbateko berean: Foru Aldundia, Zarauzko Udala, Ikastetxea eta erabiltzaileak. Administrazio publikoak, ordea, ikasturteko gastuaren estimazioa egiten duenean, Eskola Kirolean ikasle guztien % 60k baino ez dutela parte hartzen kalkulatu du, eta, gure ikastetxeari dagokionez, ez batere kalkulu zehatza, ikasleen % 95ek parte hartzen baitute kirol jardueretan; beraz, alde zuzenetik estimazio defizitario batetik abiatzen gara.

Horri erantsi behar zaio unean uneko ezohiko gastuei aurre egin behar izaten diela IGEak, kirol materiala erosteko edo eskola lehiatik eratorritako garraioaren gastu batzuk ordaintzeko.

Ikasturte honi begira, Eskola Kiroleko Batzordeak, “ikastetxea” guztiok garelara (ikasleak, irakasleak, gurasoak, etab.) oinarri hartuta, eta Hezkuntza Sailak jardueraren honetarako inolako dirurik ematen ez duela kontuan hartuta, bi bide hartu ditu finantzaketa arazoei aurre egiteko behin-behineko irtenbide gisa. Batetik, IGEak bere gain hartuko du, lehen aldiz, erabiltzaileei dagokien zenbatekoa; eta bestetik, ikasturteko administrazioak irakasle bati liberazio ordu batzuk onartuko dizkio, koordinazio lanetan lagun dezan, eta zenbateko bat jarriko du, eskola materialeko kuota bidez bildutako dirutik. Irtenbide horrekin jardueraren parte-hartzaileak galtzeko balizko arriskua saihesten saiatu gara; izan ere, egoerari aurre egiteko beste aukera bat jardueretan parte hartzeko kuota bat ezartzea zen, eta neurri horrek arrisku hori zekarren.

b.- Instalazioak

2006/07 ikasturtera arte, Oroketako jatorrizko eraikineko instalazioak baino ez genituen erabilgarri. Gaur egun, berriz, horiez gainera baditugu eskubaloiko bi jokaleku txiki, haur hezkuntzako eraikinean. Beraz, hauexek dira gure instalazioak:

Eraikin zaharreen:

- Kirol anitzerako eremu estalia. 20 x 40 m-ko areto futboleko/eskubaloiko jokaleku modura soilik edo, aldi berean, 20 x 8 m-ko frontoi eta eskubaloiko (15x20m) eta saskibaloiko jokaleku txiki modura erabil daiteke.
- Kirol anitzerako jokaleku estali gabea, honako hauek osatua: saskibaloiko pista txiki bat eta eskubaloiko/areto futboleko beste bat, eskubaloiko eta saskibaloiko pista txiki gisa ere erabil daitekeena.

- Argiztapen artifiziala, instalazio guztian.
- Gimnasio txiki bat, 70 m² ingurukoa.
- Bi aldagela zahar, bakoitza 10 bat lagunentzakoak.
- 8m²-ko biltegi txiki bat.

Eraikin berrian:

- Eskubaloiko bi jokaleku txiki.

Hala ere, egoera batzuetan entrenamendu ugari izaten direla-eta, gure instalazioak txiki gelditzen dira; halakoetan, Itxas Mendi auzoko jokalekuak ere erabiltzen ditugu. Aipatzekoa da gaur egun entrenamenduak oso baldintza kaskarretan egiten direla, batez ere ikastetxeko talde ugarien arteko bateragarritasuna lortzea zaila delako, gero eta zailagoa, eta kirol instalazioetan hobekuntzarik egiten ez delako.

Sarritan gertatu ohi da “jokaleku erdiak” baino entrenamendu gehiago egotea (saskibaloian, adibidez, egun batzuetan zazpi taldek sei saskirekin moldatu behar izaten dute). Gainera, askotan, mantentze lanik edo ekipamendurik ezak erabilezin uzten ditu instalazioak (uztaiak falta direlako saskietan, edo ateak, zelaietan, etab.). Bestalde, ez dugu atletismorako instalaziorik, eta entrenamendu horietako asko beste ikastetxe batzuetan edo Itxas Mendiko pistan egin behar izaten dira.

Eta bada kirol instalazioak eskola kirolerako erabiltzeko errentagarritasuna are gehiago murrizten duen eragile bat: instalazio horiek, gaur egun, entrenamenduen ordutegian, gurasoek, ikasleek edo/eta instalazioetan sartu eta horiek erabil nahi dituen edonork pribatuki egin nahi dituen jarduera ludikoetarako ere erabiltzen dira, eta horrek egoera gatazkatsuak sortzen ditu.

Azkenik, kontuan hartu behar dugu udalaren jabetzako instalazio horietan ez dagoela ez atezainik ez mantentze lanetarako langilerik, eskola kirola egiten den ordutegian, ez entrenamenduetan ez lehiako saioetan, ezta instalazio horiek hirugarrenei uzten zaizkien denboran ere. Hortaz, era prekarioan, eta, batzuetan, liskarrak tarteko, kirol teknikariek, gurasoek edo beste boluntario batzuek bete behar izaten dute, onenean, irudi horren zeregina.

c) Beste material batzuk

Baloiei dagokienez, ikasturte honetan ahalegin berezia egin da partidetan kirol espezialitate eta talde bakoitzeko baloi bat egon zedin, eta talde eta espezialitate bakoitzeko beste bi baloi egon zitezen, entrenamenduetan.

Era berean, ikasturte honetan 60 karpeta sortu dira entrenatzaile eta arduradunentzat, jarduera gauzatzeko behar duten informazio guztia bilduta (egutegiak, araudiak, irizpideak, fitxak...).

3.- Giza baliabideak:

a) Ikasleak. Ez da, berez, baliabide bat, baina garrantzizkoa iruditzen zaigu sektore hau giza baliabideen atalean sartzea, talde horixe baita Orokietan kirol egitura hobea sortu, sendotu eta horri eusteko gure ahalegin guztien helmuga BAKAR eta FUNTSEZKOA. Gaur egun, Orokietako 300 bat ikaslek parte hartze dute Eskola Kirolean, 30 bat taldetan banatuta. Zenbateko horiek, beraz, garrantzizkoak dira, baliabideei buruz ari garelarik.

b) Entrenatzaileak.

Ikastetxeko ikasle ohiak: ikasleekin zuzenean lan egiten duen taldearen parterik handiena dira, eta egituraren oinarri nagusia. Gazteak izaten dira, prestakuntza handirik gabeak, oro har, nahiko motibatuta egoten direnak eta, bereziki, borondate eta prestutasun handikoak. Bere lanaren truke ordain txiki bat ematen zaie, opari modura, oro har. Ikasleak izaten direnez eta konpromisoak izaten dituztenez, bai kirol arloan bai beste arlo batzuetan, entrenatzaile horiez gainera guraso bat behar izaten da taldearen ardura hartzeko, entrenatzaileek partidetara joaterik ez dutenean taldearen ardura beraiek har dezaten.

Gurasoek: gaur egun, entrenatzaileen % 25 dira, gutxi gorabehera. Hauek ere ez dute behar adinako prestakuntza teknikorik, baina inplikazioa, jakina, aurrekoena baino handiagoa da. Musu truk lan egiten dute, beren seme-alabekin igarotzen duten denboraren ordain bakarrarekin.

Talde honetako kideak izaten dira, halaber, taldearen arduradunak, hau da, entrenatzailearen laguntzaileak, eta beraiek egiten dute, askotan, ikastetxearekiko lotura.

Kirol espezialitate bakoitzerako diziplinaren koordinatzailea: irudi berria izan da ikasturte honetan; lanaldi partzialerako kontratatuta egon dira. Entrenatzaileek prestakuntza mugatua izanik, horiekin aholkularitza lana egitea eta talde arteko entrenamenduak egitea dira beren ardurak.

c) Koordinatzailea. Aurreko ikasturtean bezala, **kirol teknikari** batek egiten du, nagusiki, lan hau. Izan ere, ikasturte honetan ere **irakasle** bat izendatuko den arren, oso ordu gutxi izango ditu Eskola Kirolari emateko (astean hiru ordu), eta hori muga handia da koordinazioan lankidetzaz sustatzeko.

d) Irakasleak. Eskola Kirolaren ardura hartzeko izendatutako irakaslea kenduta, gainerako irakasleek ez dute programa honetan era sistematikoan parte hartzen, eta parte hartzekotan, norberaren motibazioak ezartzen duen neurrian egiten dute.

III. Eskola Kirolaren egitura, aurrera begira.

Ikusi dugu non gauden eta, azaletik bada ere, nola iritsi garen honaino. Orain, eta dokumentu honen xede nagusia horixe izanik, Orokietan Eskola Kirola nola egituratu nahi dugun azalduko dugu.

Etorkizunera begirako proiektu bat prestatzeko garaian, ez dugu oinarri hartu behar irtenbide bakar eta zurrun bat, aitzitik baizik. Badakigu administrazio arauak eta gizarte eta politika egoerak asko aldatzen direla. Ikasturte batetik bestera alda litezke. Eta badakigu pertsonak ere aldatu egiten direla; ikasleak, irakasleak eta gurasoak ere aldatu egiten dira. Hori guztia kontuan hartuta, baina dokumentu honen aurreko ataletan azalduko helburuak ahaztu gabe, gogoeta egin eta planteamendu malgu bat proposatu nahi dugu.

1.- Erakunde arloko baliabideak:

a.- Hezkuntza Saila

Jakinik gaur egun Hezkuntza Sailak gai hauetan inplikazio oso mugatua duela, etorkizunean hori aldatzen saiatu beharko genuke. Horretarako, aldarrikapenaren bidea hartu beharko dugu, nolabait, Orokietako estamentu guztiek; gure hitza entzungo duten gune guztietara jo beharko dugu eta gure erreklamazioak administrazioari helarazi beharko dizkiogu.

Eskola Kirolari, baita Soin Hezkuntzako ikasgaiari ere, arreta handiagoa eman diezaion eskatu behar diogu Hezkuntza Sailari, gaur egun ez baitzaio aitortzen zor zaion errespetua, gutxietsita baitago. Ez dugu ahaztu behar zer lotura estua dagoen ikasgai horren eta Eskola Kirolaren artean, ezta zer garrantzi duten ere, nola batak hala besteak, ikasleen garapen orokorrean.

Eta Hezkuntza Sailak Eskola Kirolaren egoerari erantzun estrukturalik ematen ez dionez, irakasleen klaustroak berak aurre egin behar izan dio zeregin horri.

Hala ere, itxaropena dugu etorkizunean Eskola Kiroleko Proiektu hau eskola orduz kanpoko jardura unibertsal eta berdintasunezkoen programa handi baten baitan aurkeztu ahal izango dugula, klaustroko irakasle bat koordinatzaile duela, lanaldi osoko arduraldiarekin, Hezkuntza Sailak bere gain hartuta.

b.- Orokieta; Eskola Kontseilua:

Badago estamentu bat ikastetxea osotasunean biltzen duena: Eskola Kiroleko Batzordea, Eskola Kontseiluaren mende diharduena, zuzen-zuzenean. Batzorde horrek erakunde bakar batera biltzen ditu irakasleen klaustroa, gurasoak eta

zuzendaritza –berez hiru estamentu erabat bereizi–. Eta hortxe finkatuko eta garatuko dira Orokieta Herri Eskolako Eskola Kiroleko jardueraren ildo nagusiak.

Batzordeko kideak hauek izango dira: ikastetxeko gurasoak (4 ordezkari, gehienez ere, entrenatzaile eta taldeko arduradun gisa lanean ari diren gurasoen taldekoa, ahal izanez gero), ikastetxeko zuzendaria (edo hark zeregin horretarako izendatutakoa), Eskola Kiroleko ardura duen irakaslea eta batzordeak Orokietan Eskola Kirola kudeatzeko kontratatutako teknikaria.

Batzordeak honako eginkizun hauek izango ditu: Eskola Kirolaren kudeatzaile den aldetik, Eskola Kiroleko Plan Estrategikoa, Urteko Jarduera Plana eta Urteko Memoria eta Ebaluazioa prestatzea.

c.- IGEa (Balurdin)

IGEa denez erantzukizun gehien duen alderdia, eta erakunde hori denez zuzenean nahiz zeharka Eskola Kirolaren hainbat alderdi kudeatzen dituen, aurrerantzean ere garrantzizko eginkizuna edukiko du Orokietako Eskola Kirolaren egituran.

d.- Klubak eta federazioak

Etorkizunari begira, talde horiekiko harreman arin eta aktiboa bideratzen saiatu behar dugu. Horrela, lankidetzaz hitzarmenak zehaztu ahal izango ditugu, ez soilik lehiaren esparruari buruzkoak, baita beste ekintza batzuei, entrenamenduei, teknikari espezialistei eta entrenatzaileei buruzkoak ere. Hala ere, beti aztertu beharko dugu lankidetzaz horiek gure proiektuaren helburuekin bateragarri diren edo ez, eta hala izan daitezkeen bermatu beharko dugu.

e.- Beste erakunde batzuk

Haiek direnez legegileak eta arauak indarrean ezartzen dituztenak, Eusko Jaurlaritzak (Kirolaren Legea, etab.), Foru Aldundiak eta Udalak markatuko digute gure ikastetxearen eta erakundearen arteko elkarreraginaren nondik norakoa, eta ez guk.

Orokietako Kirol Batzordeari dagokio, ordea, gure ikastetxeak zuzenean nahiz zeharka Eskola Kiroleko jarduerak eta arauak eztabaidatzen diren gune guztietan ordezkariak eduki dezan bermatzea. Ezin dugu kirolaren antolaketa esparrutik kanpo gelditu, ez udalean, ez eskualdean, ez probintzian, ezta erkidegoan ere.

2.- Baliabide materialak:

a.- Ekonomikoak

Arlo honetan egin behar dugu eztabaidarik sakonenetakoa. Kontuan hartzen badugu Gipuzkoako Eskola Kirolaren egituraren barruan gaudela, urtez urte gero eta premia ekonomiko handiagoa dagoela ohartuko gara. 2007/08 ikasturtean garrantzi handiko aldaketa gertatu da ikastetxeak Eskola Kirolari buruz dituen planteamendu ekonomikoei dagokienez, eta litekeena da aurrerantzean are aldaketa nabarmenagoak gertatzea.

Aldaketa horien funtsean Gipuzkoako kirola arautzen duten Foru Arauak daude, horiek eragin eta sustatutako aldaketak dira, eta ezin diegu arau horiei ezikusiarena egin. Horregatik, arlo ekonomikoan aldaketa handiak izango dira Gipuzkoako ikastetxe publikoetan nahiz pribatuetan, eta aldaketa horiei aurre egiteko, funtsezkoa izango da alde aurretik barne azterketa eta eztabaida sakonak egitea. Aurrera begira aurreikusten diren aldaketei dagokienez, diru laguntzak jaso ahal izateko begiraleei oinarritzko prestakuntza eta titulua eskatzeko baldintza dago. Begiraleei baldintza hori eskatzeko, ordea, ordainen bat eskaini beharko diegu trukean; eta horrek, jakina, kostu bat dakar. Egokia litzateke beharrezko neurriak hartzen hastea, betiere jakinik egoera berri horretara egokitzeko zer epe dugun. Lortu nahi ditugun helburuei buruz gogoeta egin behar dugu, eta ohartu behar dugu hezkuntza helburu horiek bermatzeko beharrezkoa dela gutxieneko diru ekarpen bat xede horietara bideratzea.

b.- Instalazioak

Inork ez du zalantzarik egiten instalazioen egoera prekarioaz. Horien errentagarritasuna areagotzeko eta hobetzeko, entrenamenduen ordutegian (oro har, 16:30 eta 17:30 bitartean) Eskola Kirolerako beste ezertarako erabil ez daitezen lortu beharko genuke. Hobekuntza ugari ekarriko lituzke horrek, adibidez: entrenamenduetan “ikusleen” esku-hartzerik ez izatea, istripu eta gorabehera gutxiago gertatzea, entrenamenduak eta asistentzia hobeto kontrolatu ahal izatea, entrenamenduetan jolaslekuan izaten diren gatazka egoerak murriztea, etab.

Horrez gainera, hobekuntza oro denez ona, ikasturte bakoitzean instalazioetan egin beharreko hobekuntzen berri bilduko beharko litzateke urteko jardueren plan batean. Plan horretan, hobekuntza errazak proposa litezke, adibidez, saskibaloiko uztai berriak edo Haur Hezkuntzako eraikinean saski berriak ezartzea..., eta baita, pixkanaka, hobekuntza handiagoak ere, adibidez, estalitako instalazioa ixtea edo aldagelak berritzea eta hobetzea, premia nabarmena baitago. Kirol materialetarako biltegi hobea ere beharko genuke, baita aldageletarako eta biltegirako sarbide hobea ere, etab.

3.- Giza baliabideak:

a.- Ikasleak

Etorkizunean ere, oso kontuan hartu beharko dugu gure ahalegin guztien hartzailerik BAKAR eta FUNTSEZKOAK ikasleak direla. Zalantzarik gabe, beraiek dira Orokietako kirol egitura sortzeko, hobetzeko eta mantentzeko arrazoia.

b.- Entrenatzaileak

Ikastetxeko ikasle ohiak:

Gaur egungo arauak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzak iragarri dituen joera berriak kontuan hartuta, talde hau izango da, gerora begira ere, ikasleekin zuzenean lanean ari den taldearen muina eta egituraren ardatz nagusia.

Eta etorkizunerako galdera nagusia da entrenatzaile horiek behar bezala prestatuta dauden eta ordainsari egokia duten. Eta bi galdera horien erantzuna beti ezezkoa izango denez, egoera hori aldatzeko moduak aurkitu eta lantzen hasi beharko dugu. Eta arlo honetan ordainketaren auzia ahaztu gabe; izan ere, ez da testu honen xedea auzi hori aztertzea, baina oso kontuan eduki beharrekoa dela irizten diogu.

Gazte hauen prestakuntzari dagokionez, irtenbidea nahiko zaila da. Ikasturte honetan antolatu dira prestakuntzarako zenbait ekimen, Real Sociedad elkartearen eskutik, eta arrakasta izan duten arren, oraindik oso mugatua da parte-hartzea. Gaztetxo hauen kolektiboaren gizarte egoerari begiratu besterik ez dugu, horiek prestakuntza hartzea motibatzea zein zaila den erakusten duten hainbat adibide aurkitzeko, batez ere hutsaren truke egin beharreko zerbait denean.

Orokietan, prestakuntza sustatzeko beste saiakera batzuk ere egin ditugu; adibidez Eskola Kiroleko arduradunek entrenatzaileekin bilerak egin dituzte, material didaktikoa banatu zaie, hainbat kirol diziplinatako (ikasturte honetan, saskibaloia eta eskubaloia) teknikari espezialisten laguntza eskaini zaie (eredu, laguntza eta akatsak zuzentzeko euskarri gisa).

Horixe izan daiteke bidea, zalantzarik gabe. Baina ekintza gehiago egin beharko ditugu. Adibidez, Foru Aldundiak abian jartzen dituzten, Eskola Kiroleko Begirale ikastaroetan parte hartzea bultzatu beharko ditugu gure entrenatzaileak.

Era berean, eta eskarmentu handiagoa duten entrenatzaileak lortzeko, emaitza positiboak ematen ari da ikasturte bakoitzean entrenatzaileei ematen zaien sariaren zenbatekoa zehazteko garaian entrenatzaile bakoitzak Eskola Kirolean zenbat urteko esperientzia duen kontuan hartzea.

Eta dokumentu hau ez denez txosten itxia, ikasturte bakoitzean entrenatzaileen motibazioa, prestakuntza eta gogobetetasuna areagotzeko ahalik eta ekimen gehien andu beharko dira.

Ikasleen gurasoak:

Gaur egun, funtsezko egitekoa betetzen dute Eskola Kiroleko egituraren barruan, baina gure gizarte errealitateak erakusten digunez, gurasoen artean ere gero eta zailagoa da borondatezko lanetarako benetako inplikazioa lortzea.

Horregatik, ez dugu segurutzat jo behar talde horrek etorkizunean Eskola Kiroleko egiturari eusteko gaitasuna izango duenik (gaur egun hala den arren). Edonola ere, oso interesgarria litzateke “taldeko arduraduna”, irudi sortu berria, mantentzea, Eskola Kirolaren funtzionamendu onerako hain onuragarria izanik.

Irudi horrez gainera, eta entrenatzaile gisa egiten ari diren lan bikaina dela-eta, gurasoek ahal den neurrian entrenatzaile lanak egin ditzaten ateak zabalik utzi beharko dira eta horretarako laguntza eman beharko zaie.

c.-Diziplinetako koordinatzaileak:

Interesgarria litzateke Orokietan kirol teknikarien talde handi bat edukitzea; baina, noski, hori ez litzateke bideragarria, ekonomikoki. Gaur egungo planteamendua hauxe da: koordinatzaile bat eta teknikari espezialista bat (diziplinako koordinatzailea), partaide gehien dituzten diziplinetan (nahiz eta oraindik goiz den sistema horren balioespen objektiboa egiteko). Eta planteamendu horrek iraunkortasun ekonomikoa eta kirol jardueran eta egituren kudeaketan prestakuntza duten teknikarien premia uztartzen dituela esan daiteke.

Baina gai honi buruz ere urtero egin daitezke azterketak, ikasturtez ikasturte ikastetxeko kirol jarduerak kudeatzeko modua hobetzeko.

d.- Eskola Kiroleko koordinatzailea.

Irakasle bat lanaldi osorako liberatu beharko genuke, eskola orduz kanpoko jardueretarako. Hori lortuz gero, koordinazio eredu misto bat ezarriko genuke (irakasle bat eta eskola kiroleko koordinatzaile bat) eta horrek aukera emango liguke proiektu hau behar bezala aurrera ateratzeko behar dugun egonkortasuna lortzeko.

e.- Irakasleak.

Lehen esan dugunez, itxaropena dugu etorkizunean Eskola Kiroleko Proiektu hau eskola orduz kanpoko jarduera unibertsal eta berdintasunezkoen programa handi baten baitan aurkeztu ahal izango dugula, eta klaustroko irakasle koordinatzaile bat lanaldi osoko arduraldiarekin izendatuta, Hezkuntza Sailaren kontura, ahal izanez gero.

IV. Eranskinak:

Amaitzeko, eta eskuragarri ditugun giza baliabideen egituraren osagarri-laburpen modura, ikastetxeko talde bakoitzaren zereginen eskemak eta horien arteko eta eskolaz haragoko beste estamentu batzuekiko elkarreraginaren eskema atxiki dizkiogu txostenari.

ESKOLA KIROLA, OROKIETA HERRI ESKOLAN:
C.- BEREHALA GAUZATU BEHARREKO
JARDUERAK

1. Administrazioaren eta antolaketaren arloan

- **Presentzia bermatzea** gure ahotsa entzungo duten eta administrazioari –udal, eskualde, probintzia nahiz erkidego mailako administrazioari– Eskola Kirolari arreta handiago emateko gure aldarrikapena helarazteko aukera emango diguten gune guztietan.
- **Hezkuntza Sailari eskatzea, Eskola Kirolean inplikazio handiagoa** edukitzeaz gainera, **Soin Hezkuntzako ikasgaia dagokion begiruneaz tratatzea**. Ez dugu ahaztu behar zer lotura estua dagoen ikasgai horren eta Eskola Kirolaren artean, ezta zer garrantzi duten ere, nola batak hala besteak, ikasleen garapen orokorrean ere.
- **Klub eta federazioekiko harreman arin eta aktiboa** bideratzea, lankidetzaz hitzarmenak zehazteko, ez soilik lehiaren esparruari buruzkoak, baita beste ekintza batzuei, entrenamenduei, teknikari espezialistei eta entrenatzaileei buruzkoak ere. Hala ere, lankidetzaz horiek gure proiektuaren helburuekin bateragarri direla bermatu beharko dugu, betiere.

Arintasun horren erakusgarri izan daiteke Eskola Kirolaren barruan egiten den espezialitate bakoitzerako ikasturte bakoitzeko araudi espezifikoak bizkorrago eskuratzea, partiden egutegia eskuratzea etab.

- Hezkuntza Sailak Eskola Kirolaren egoerari dagokion erantzunik ematen ez dion bitartean, **ikastetxearen erabateko inplikazioa** lortzea. Ikastetxeak Eskola Kiroleko egituretan parte har dezan lortzea, eta ikastetxeak jarduera honetarako dituen egiturak sustatzea eta sendotzea. Zeregin hori ikastetxeko Eskola Kiroleko Batzordearen beraren bitartez bidera daiteke.
- **Ikasleei, gurasoei eta irakasleei informazio egokia ematea**, programaren nondik norakoez, Orokieta Herri Eskolak jarduera honi begira dituen helburuez, eta haiek parte har dezaten eta inplika daitezten lagungarri izan daitezkeen alderdi guztiez (entrenamenduen eta partiden ordutegiak, partiden egutegia, balantzeak...).
- Maila bereko **talde guztientzat bigarren entrenamendu misto eta bateratua** eskaintzea, nahi duenak parte har dezan.

2. Baliabide materialen esparruan

- Aldundiari **gaur egungo finantzaketa eredia alda dezan** eskatzea, lau eragiletan oinarritutako egitura ekonomikoa izan ordez (Aldundia, udalak, ikastetxeak eta erabiltzaileak), hiru eragiletan oinarritua izan dadin (ikastetxea eta erabiltzaileak bakar bat bezala hartuta). Arrazoia begi bistakoa da: erabiltzaileak dira, praktikan, bi eragile horiei dagozkien parteak ordaintzen dituztenak, ikastetxeak ez baitu jarduera honetarako partidarik.
- Diru laguntzei dagokienez, sakoneko aldaketei aurre egiteko adi eta prest egotea. Dirudienez, begiraleek oinarritzko prestakuntza eta titulua edukitzeko baldintza ezarriko dute, diru laguntzak jaso ahal izateko.
- **Zarauzko Udalari lankidetzaren sendoagoa eskatzea:** diru laguntzaren zenbatekoa lehenbailehen kontuan hartzea, edo are aurreratzea, beste udal batzuek egiten duten bezala; instalazioak hobetzea eta zaintzea; etab.
- Entrenamenduen ordutegian (oro har, 16:30 eta 17:30 bitartean) **instalazioak Eskola Kirolerako beste ezertarako erabil ez daitez**en saiatzeari buruzko abantaila handiak ekarriko lizkiguke horrek: asistentziaren eta entrenamenduen garapenaren kontrol estuagoa, “ikusleen” esku-hartzerik eza, gatazka egoerak murriztea, istripuen kopurua murriztea, etab.

Horretarako, neurri zehatzak hartu beharko dira, adibidez: instalazioak eskola kirolerako erabiltzeko lehentasunaren berri familiei ematea, jolaslekuan bizikletaz ibiltzerik ez dagoela gogoraraztea eta jakinaraztea... Beharrezko jotzen diren neurriak hartu beharko dira, adibidez, irakasleek sentsibilizazio kanpainetan lagun dezaten lortzea, etab.

- **Instalazioak hobetzea**, ikasturte bakoitzerako xedeak zehaztuta.

Alderdi honi dagokionez, Eskola Kiroleko Batzordeak ikasturte bakoitzean prestatuko duen urteko planak eta ikastetxeak ezarriko duen plan estrategikoak markatuko dute instalazioak hobetzeko aurrera begira zer egin beharko den.

3. Giza baliabideen esparruan

a) Koordinatzailea

- Hezkuntza Sailak **eskola orduz kanpoko jardueretarako lanaldi osoko irakasle bat** izendatzeko aukera eman diezagun aztertzea. Baliabide hori eskatzeko proiektua lantzea. Hori lortuz gero, koordinazio eredu misto bat ezarri ahal izango genuke (irakasle bat eta Eskola Kiroleko koordinatzaile bat) eta proiektu hau behar bezala aurrera ateratzeko behar dugun egonkortasuna emango liguke horrek.

b) Entrenatzaileak

- **Gazteon (ikasle ohiak) prestakuntza hobetzea.** Prestakuntzarako ekimenak bideratzea, adibidez, ikasturte honetan Real Sociedad elkartearen bidez gauzatu duguna; Eskola Kiroleko arduradunek entrenatzaileekin aldi berean bilerak egitea; material didaktikoa banatzea; kirol diziplina bakoitzeko teknikari espezialisten laguntza eskaintzea (eredu, laguntza eta akatsak zuzentzeko euskarri gisa). Era berean, prestakuntza jardueretan parte hartzeko motibazio mugatua dutenez, nolabaiteko pizgarriak eskaintzea Foru Aldundiak iragarritako Eskola Kiroleko begirale ikastaroetan parte har dezaten.

Aldi berean, esperientzia eta inplikazio handiagoa duten entrenatzaileak erakartzeko, saria zehazteko garaian beren esperientzia eta errendimendua kontuan hartzea (ikasturte honetan abian jarri dugu bide hori).

- **Gurasoek entrenamenduan inplikazio handiagoa izan dezaten sustatzea,** haiei ere material didaktikoa emanaz eta prestakuntza ikastaroetan parte hartzeko aukera emanaz, baita teknikari kualifikatuagoen laguntza eta ikuskaritza eskainiz ere.

Ikasturte amaieran sentsibilizazio kanpaina abian jartzea, hurrengo ikasturteko talde berriei begira batez ere (Lehen Hezkuntzako 2. maila).

- **Diziplinako koordinatzaile bat lortzea** partaide gehien biltzen dituen **diziplina bakoitzerako.** Izan ere, une honetan bi baino ez ditugu: eskubaloikoa eta saskibaloikoa. Era berean, horien eginkizun guztien garapenean sakondu beharko da.

c) Irakasleak

- **Eskola Kirola jendarteratzeko kanpainetan era aktiboan parte hartzea.** Lehen Hezkuntzako 2. mailan kirolari buruzko monografiko bat (ikasgelako proiektu gisa) lantzeko aukera aztertzea.
- **Jardueran parte hartzen ez duten ikasleez arduratzea,** eta, beharrezkoa iritziz gero, horien gurasoei informazio gehiago ematea.
- Entrenatzaileekin eta Eskola Kiroleko koordinatzaileekin **lankidetzan jardutea.** **Hezkuntza irizpideak bateratzeko** zereginean era aktiboan parte hartzea.
- Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleekin ikasturteko azken hilabetetan Eskola Kirola sustatzeko kanpaina egitea, Soin Heziketako eskoletan.

4. Hezkuntza arloa

a) Entrenatzaileak

- **Kirol trebetasun eta gaitasun batzuk garatzen laguntzea**, oinarrizkoak, kide berriekiko komunikazio eta harreman hobekak izateko.
- Beharrezko **ikaskuntza** guztiak ahal den neurrian kirol espezialitatearekin lotura duten **jolas zehatzen bidez** egitea. Entrenamenduetarako gure helburuekin bat datorren **programazio** bat diseinatzea.
- **Harremanak eta lankidetzak sendotzeko jolasak** erabiltzea.
- Kirol modalitateen **arauak** eta horien **helburuak** azaltzea.
- **Saioa-akatsa dinamika** onartzen laguntzea, funtsezkoa baita ikaskuntza prozesuan.

b) Gurasoak

- Norberaren **parte-hartzea eta inplikazioa** sustatzea ahal den neurrian, ikusle gisa, taldeko arduradun gisa, entrenatzaile gisa, etab.
- Jarduera **banakako ekipamendu egokiaz** (kirol arropa eta oinetakoak) egin dezaten saiatzea.
- Seme-alaben kirol jardueretik interesa erakustea.
- Seme-alabak Eskola Kiroleko jardueretan parte hartzera bultzatzea.

c) Talde guztientzako jarduerak bateratuak

- **Eredu ona ematea.**
- **Euskara erabil dezaten** sustatzea, jardueran elkar komunikatzeko hizkuntza nagusi gisa.
- Entrenamendua edo partida amaitutakoan, **norberak eta taldeak egindako hobekuntzaren, egindako ahaleginaren eta izandako dibertsioaren azterketa egitea**, emaitza soilik kontuan hartu ordez. Jolasak norberaren aldeko emaitza lortzetik harago dituen xedek gogora ekartzea.
- **Taldeko kide guztien garrantzia nabarmentzea**, eta kide bakoitzak taldeari egiten dion ekarpena aintzat hartzea.

- **Norberarekiko eta besteekiko errespetuari** lehentasuna ematea, irabazteko grinaren gainetik.
- **Ez ezartzea zuzendaritza estuegia**, ez esatea etengabe zer egin behar duten.
- **Akatsak ez aurpegiratzen saiatzea**, jendaurrean batez ere, eta **hobetzeko iradokizunak** egitea, horren ordez. Beren artean gauzak elkarri leporatzea edo elkarri iseka egitea saihestea.
- **Gatazka egoerarik gertatuz gero jarraibide batzuk** aintzat hartzea. Beren arteko eraso fisiko edo hitzezkoak saihestea. Sentimendu negatiboak behar bezala kudeatzeko giro egokia sortzea.
- **Joko garbia sustatzea:** arerioak min hartuz gero joko geldiaraz dezaten saiatzea; beste taldeko kideak agur ditzaten saiatzea (partidaren aurretik eta ondoren), etab.
- **Erantzukizunaren balioa** lantzea: partidetza, puntualtasuna eta materialaren zaintza.
- **Ikasleei antolatzen laguntzea**, partidetara joateko.
- Ikasleei aurrera begira kirol arloa lantzen jarraitzeko informazioa ematea (batez ere Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoei).